

# Historiaren ikertzaile baten eskuliburua



СОБИЕРНО АҲЗСО

# Proiektua

Proiektu honen helburua frankismo garaian langile klasearen askatasun eta eskubideen alde ontzioletako langileek jokatu zuten papera berreskuratzea da. Ontziolak izan dira Euskadin industrializazioa eta modernizazio prozesuan sektore garrantzitsuenetarikoa eta bandera-ontzia.

Sestaoko La Naval bezalako ontziola handiak sindikalismoaren barneko figura handien sorleku izan dira. Baina gertaera hau ez da kointzidentzia hutsa, aldarrikapen indartsu batengandik habiatzen da, 1947 edo beranduago gertatu zen moduan, 1962ko grebetan. Sektore honetako lan baldintzak, sortu ziren soziabilizazio erak eta aldarrikapen kulturak ontzioletara lotutako enpresetan izugarrizko oihartzuna izan zuten dinamikak sortarazi zituzten, beste enpresetakoarekin alderatuta askoz ere handiagoa bere tamainarengatik. Antolakuntza eta ondorengo ekintzak 1953ean Euskaldunako langileek greba egin eta langile batzorde bat eraikitzea eragin zuen adibidez, eurek aukeratuta gatazkaren kudeaketan bozeramaile izateko.

# Borrokalari hauen historia berreskuratzerantz animatzen?

Historia berreraikitzea ez da erraza, iragana pieza askok osatzen duten puzzlea da. Hori berreraikitzen lan egiten dugunok garai bakoitzean iraganak utzi dizkigun pista erabiltzen dugu: arkitektura, helarazi dizkiguten ohiturak, txostenak, azken hamarkadetako grabaketak...

Iragan gertukoaren historia berreraikitzea errazagoa dela ematen du teknikoki pista gehiago dugulako puzzlea osatu ahal izateko. Baina askotan hau ez da hain erraza benetan historia hori ikuskera guztietatik berreraiki nahi badugu, Askotan izen handien historia ikasten dugu baina kaleko jendearen historia ahaztuta geratzen da. Guk langile horien, euren senide eta inguruko historia berreraiki nahi dugu, ontzioletan bizi eta ontzioletan borroka egin zuten horiena. Zortez gabiltza, ahozko historia baitugu laguntzeko.

# Zer da ahozko historia?

Ahozko historia pistak lotzeko era bat da. Gertukoen dugun historia berreraikitzean protagonista propioak ditugu. Euren bizipenak historia poliedrikoa berreraikitzeko gako izan daitezke.

Diktadura frankista garaia, askatasunak urritu ziren garaia izan zen. Langileek klandestinitatean borrokatu behar izan zuten askatasuna berreskuratzeko. Bitartean erregimenak gaur arte iritsi diren dokumentuak sortu zituen, mugimendu antifrankistak ez zuen aukera hori izan. Geu gara euren istoriak berreskuratu behar ditugunak etorkizunean historia hori ezagutu dadin. Errealitate hobeko baten alde borrokatu zuen jende arruntaren istorioak.

**"A mi también me lo han contado –  
Niri ere kontatu didate".**

### **Nola egingo dugu proiektu hau?**

Pistak jasotzen ari gara eta izena baita arauak jarri dizkiogu historia den puzzle horren piezak izan daitezen.

### **Zeini zuzendua da proiektu hau?**

Erabat gazteei zuzendutako ekintza bat da. Hasiera batetan bigarren hezkuntza eta batxilergoko ikasleez ari gara.

### **Zertan datza?**

Ikasleek bideo txikiak egin beharko dituzte, 5-10 minutu ingurukoak. Bere inguruan galdetu eta gero gazteek, helduek kontatutakoa azaldu beharko dute ontzioletako lanaren edo ontziolek izan zuten eraginaren inguruan.

### **Zein da horren helburua?**

Lan hauek, ikastetxeetan ikusteaz gain, bestelako tokietara eraman ahal izango dira, herrietako kultur etxeak esaterako. Horietako batzuk etorkizunean egingo dugun blog batetan egongo dira edo Jose Unanue Fundazioa egiten ari den bisita multimediarako baliabide moduan. Ezinbestekoa iruditzen zaigu gazteek, datuak jasotzeaz gain, beren heldu eta herriaren istorioak bere egitea. Era honetan ontziolen inguruan lan egin eta bizi izan ziren pertsona horien narratzaile bihurtuko dira.

# Nola egin behar da piza hauek jasotzeko lana?

## Erabili daitezkeen euskarriak.

Telefonoan bertan jaso ahal izango dira, argazki edo bideo kameran edo ikasleak bere eskura duen euskarri digitalean.

Ikerketa banakakoa edo taldean egin daiteke.

### Zer galdetuko dugu?

Galdera honi erantzun baino lehen iraganaren inguruko **informazioa** bildu beharko dugu. Landuko dugun historiaren laburpena atxiki dugu (I. eranskina). Interesgarria izango litzateke baita ere informazio gehiago bilatzea Interneten, bibliografia edo ikusentzunezko erreportajeetan.

Informazioa jaso eta gero, bi gauza eduki behar ditugu argi, batetik dizean nola egiten zuten lan jasotzea interesatzen zaigula, nolakoak izan ziren langileen mobilizazioak, nolako zen une hartako Sestao hura, emakumeen papera ontzioletan, ontziolak umeen begietatik ikusita... Galdera gidoi bat prestatu beharko dugu jakin nahi duguna oinarri hartuta. Galderek ez dute itxiak izan behar, ikertzaile on moduan elkarrizketan zehar egokitu ahal izango dituzue. Ikerketa itxi eta gero informatzaileak bilatu beharko dituzte landu nahi dugun gaiaren inguruan argia jarriko dutenak. Senide, bizilagun, auzotik aurkitzen dugun jendea izan daiteke. Elkarrizketa hasi baino lehen garrantzitsua da pertsona bakoitzari proiektuaren asmoaren berri eman eta II. Eranskina sinatzea. Zeratarako sinatu? Bere irudia erabili ahal izateko eskubideak uzteko. Elkarrizketak grabatu egingo dituzue pertsona edo informatzaileekin.

Informazioa jaso eta gero zuen burua **grabatu beharko duzue** aztertu duzuenaz azaltzeko (adingabeak izanda gurasoei honen berri eman eta baimena sinatu beharko dute (III: Eranskina)). Informatzaileetako bat bakarrik grabatu baduzue baina bati baino gehiagori galdetu jasotako informazioa zuen hausnarketan erantsi dezakezue. Bideoak 5-10 minutu ingurukoa izan beharko du. Bideoa jaso eta gero **txosten** txiki bat egin behar da informazioa non bilatu duzuen azaltzeko, non eta nola aurkitu duzuen jendea, izan dituzuen zailtasunak eta proiektuaren ondorioak.

# Proiektua onartzeko bete behar diren gutxiengo baldintzak.

- ✓ Aurrez informazioa jasotzea.
- ✓ Informatzaile bat baino gehiago edukitzea eta testigantzaren zati osoa edo zati bat bideoan grabatzea.
- ✓ Txostena egitea.
- ✓ Baimenak sinatuta edukitzea.
- ✓ Lortutako informazioa 5-10 minutuko bideoan kontatzea.

# Zer gertatuko da emaitzarekin.

Testigantzak dauzkagunean, era egokian egin badira, azaldutakoari jarraiki, Jose Unanue Fundazioaren artxiboaren parte izatera pasako dira. Ikastetxean bertan, inguruko beste ikastetxe batetan edo harremana duten entitateetan ikusi ahal izango dira. Gainera ibilbideetarako edo fundazioak egiten dituen beste ekintzetarako ere erabiliko dira.



# ZALANTZAK

- [Junanue-dz@euskadi.ccoo.es](mailto:Junanue-dz@euskadi.ccoo.es)
- **unanuefundazioa@euskadi.ccoo.es**